

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetamairugarren urteko Orrilaren ogeta-bederatzian, Ekauta-jauregian, Irigarai jauna Maipuru dala, ta Villasante, Gorostiaga, Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak ta Zinkunegi urgazlea berten dirala, egiten dau Euskaltzaindiak gaurko deitutako batzarra. Dassance euskaltzainak egin etorria iragarri dau.

Araudizko otoitza esan-eta, lenaurreko batzar-agiria irakurri da. Onetsia izan da.

Zadorlariak adierazoten dauz, lenaurreko batzarrean arturiko erabagiak betetako Bizkaiko Ekautaren Jakintza Batzordeari bidaldu jakozan idazki biak: bata, Batzorde atan orain arte Seminario de Rojas euskaltzainak beroan dauan Euskaltzaindi onen ordezipena, aurrerantzean Oleaga Euskaltzainak eroango daua jakin araziz; eta bestea, Euskaltzaindi-etxea aldan bestean eta egoki garbitu ta edertuteko Batzorde berak eskiñiriko laguntzea pozik eta esker onez ikusi ta artu dala adierazoz. Baita lenengo idazkiari egin dautsan erantzuna bere, irakurten da; bertan dino ontzat artu daua Oleaga'ren izentapena, ta Batorde aren ordelari bat Euskaltzain izentatzea gura leukeala. Azkeneko arazo au urrengo baten eta ondo aztertirik ebartziko da.

Gorostiaga jaunak diño, euskaltzale batzuk adierazi dautsela "Euskaltzaindiaren adiskideak" izentzat arturik, gertu dagozala Euskaltzaindiari zelanbaiten lagunduteko. Pozik artzen da barri au eta Gorostiagaren ardurapean izten da asmo ori aurrera eroateko bear leitekena egitea.

Irigarai jaunak aitatuten dauz, Gipuzkoako Ekautak euskerearen alde darabil-tzan asmoak, eta Euskaltzaindiaren **Euskera** antzinako aldirokoa barriro argitaratze-ari dagokozan zertzelada batzuk Erabagia; arazo oni dagokozan arduretan ekitea nun nai ta nola nai.

Azkenez Lafon euskaltzainak, bidaldiriko liburu bien barri emon da. Liburuok dira: bata, "Etudes Basques et Caucasiques"; bestea, "Revue historique de Bordeaux et du departement de la Gironde". Atseginez ikusi ta artu dira.

Beste barik eta araudizko otoitzaz emon dako batzarrari amaña.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga